

**AGIRREBEITIA ETA ARRIAGA'TAR
AITA SEBERINO AGURGARRIA
URABAKO MIXIOAREN BURU IZANA
(1885 - 1962)**



Juan dan 1985 abenduaren **22n**, omenaldi bat egin jakon Berrizen, bertako seme ospetsu izan zan A. Seberino Agirrebeitiari. (Amabietako meza karmeldar talde batek emon eban. Eta meza ortan bere loba A. Pedro Maria Duiiabeitiak, osabaren bizitzari buruz barri bete bete azaldu eban.)

I - MIXIOLARI

Karmeldarren artean Teresa Deunaren Seberino izena artu eban arren, eta olan esagutua izan zan arren, bateoan ezarri jakona ez eban ori, Antonio Eustakio Agirrebeitia eta Arriaga bano. Berrizen jaio zan 1885ko abenduaren 11n, Gangoiti oifietxean, Andikonako Andra Man Santutegi ospetsutik ur-urrean.

Prailletako asmotan, 1898an, Durangoko jesuiten ikastetxean asi zan latin eta ganerakoak ikasten. Bafia an illabete batzuk egin eta 1899n, Naparroako Villafrancara aldatu zan, karmeldarrak an euken Ikastetxera. Ikasle lagunak autortu dabenez, ikasle kontuan aurrenetakoa izan ei zan eta egin bearrak egiten akatsik gutxienetakoa. Andik laster, 1901ko jorraiaren 18n, Bizkaian Larrako praillegeien etxean karmeldarren soifiekoa jantziko dau eta urrengo urtean jorraiaren 24n profesia egin. Markinan, profesia egin berrien etxean, urte bete igaro, eta Burgosen, filosofia ikasteko urte bi egingo ditu 1903tik 1905ra. Gasteizera aldatu zan irugarren filosofi-urtea egin eta teologi-urteak aste. Teologia ikastea Begonan amaitu eta 1910ko epaillaren 12n abadegintza artuko dau.

Ikasketarako ekarren gaia eta garra ikusita, urte orretako udagoienean Nagusiak Belgikara bialdu eben eta an, Lovainako Unibersitatean jarraitu eban ikasten urrengo urtearen azkenerrate. Beste urte bete Vienan egingo dau, era batera aleman ikasiaz. Aberrira biurtuta Burgosen ipini eben «El Monte Carmelo» aldizkariaren banatzaille eta diru-arduradun; eta ango «Universidad Pontificia» dalakoak aleman irakasle egin eban. Karguotan iru urtez zintzo jar dun ondoren, 1914n, Naparroako Villafrancara doa ango irakasle izentautu. Eta andik urte bira, Larrara, bertako karmeldarren Ikastetxeko irakasle eta zuzendari. Batera eta bestera aldatzeok bera osasun urrikoa izateak eraginak ziran. Eta orrexek, osasun onik ezak zabaldu eutsan askenez Colombiarako bidea. Colombiak emongo eutsan bear eban gorputzeko sendotasuna, eta bere bizian egingo eban mixiolari-lan ikaragarrizkoa egiteko leku egokia.

Erromako «Propraganda Fide» Batzordeak 1918-ko epailla-

ren 14n, Colombian Urabako Mixiolekua sortu eban eta Naparroaren izena daraman karmeldarren San Joakin Barrutiaren rriendean jarri. Urte bereko iraillaren 2an arako izendapena artuta, laster artu eban Aita Seberinok mixio atara joateko itxasontzia. Urrengo urtean, agustuan, elduko zan bertara Aita Jose Joakin Arteaga, Urabako «Prefecto Apostolico» izentautan.

Frontinon aurkituko dau lenengo mixiolari-taldea lanean asteko gertu, Aita Seberino buru dabela. Lenengo orduko langille artean Aita Seberino eta Amando ziran. Biok bakarrik jazoko dabe leku atan lenen-lenengotik asita «egun guztiko nekea eta beroa» eroatea, asi ta amaitu, Antioquiako Eleizbarrutiak 194In Uraba mixio-lekua iruntsi eban artean. Aita Seberino izango da bere lurralde maite ori 1945n itxiko dauan azkenengoa.

Aita Jose Joakin Arteaga argi onek oso ederto eroan zituen mixiolarien ekintza atontzeko lanak eta bere buru zur eta gaitasun arrigarriaz izen andikoa egin zan Colombiako erri-agintaricn eta eleiz-agintarien aurrean.

Zoritxarrez, 1926ko udabarrian galtzen dau Urabako Mixioak bere euslerik onena zan Aita Jose Joakin Arteaga.

Bere bizia Karmengo ordenaren eta Urabako Mixioaren aide eskintzen ebala, 1926ko maiatzaren 18n il zan. Urte bereko agiri batez Erromak Aita Seberino egin eban, illaren utsunea beteaz, Urabako Prefekto Apostoliko edo buru barri.

Aita Arteagak buru egon zan zortzi urteetan, aurrerakada andia eta fruturik ederrenak eskintzen zituen erakunde egokia emon eutsan Mixioari. Aita Seberinok aren senipartea jasoaz eta ezarri eutsoen karguaz'mixio-lanerako gar barriak arturik, Aita Arteaga zanak eraturiko plangintza guztia azken-bururano eroatea erabagiko dau.

Eta bere mixio-lanetan ogeta iru urte"eta Mixioko Buru amabost eroiazala, 194Iko garillaren 3n, Erromako agin bat etorren Urabako mixio-barrutia Antioquiako Eleizbarrutiari ezarri eta bertako abadeen ardurapean isten ebala, naikoa kristiaturik eta bere adin betera elduta egoala-ta.

Eta, 1948n, orra or non datorren bere jaioterri aldera,

Amorebietako karmeldar ikastetxean gelditzeko, osasunez makalik, baina idazle lanetan eta bertako ikas-mutillei irakasten ekiteko gogatsu.

Bere asken urteak emen emongo ditu, lumeari oporrik emon barik, aldizka bere azter-lanai eta etxeko ikas-mutillei eskola emoten ekifiez. Praille bizitzako alkar-orduei zeatz jarraituz, biarko mixiolarigai txikientzat lanerako garraren eta Jaungoikoari osoan emondako bizitzaren eredu eta ispillu bizi egiftik, emen aurkitu eban, Jaungoikoaren besoetan, atsedean bete eta betikoa.

Jorraillaren 29'an 1962ko Pazko urrengo domekan il zan Aita Seberino karmeldarra, 77 urte zituala, praille bizitzan 60 urte ondo beteak egin ondoren.

II - IDAZLE

Mixio-lanetan ain murgildurik bizi izan batek arritzekoa da zelan aurkitu eban astirik beste Ian batzuetan ain sarturik bizitzeko eta arrigarriago egingo jaku ainbeste azter-lanetan ainbat liburu eta iturrietara jo bearra eskatzen daben lanetan ibilli zala gogoan artu ezker. Benetan gauza ezinezkoa dirudi mixioleketan buru belarri ebillen batek, olango lanik egitea. Aita Seberinok ain ezinezkoa dirudian Ian ori egin eban ain zuzen. Guzurra dirudiana orra non dogun lanerako poz eta kemenak egiatzko mirari eginda.

Aita Seberinok idatzitako Iiburuen zerrenda egin nai dogu emen, urtez-urte, urrengorik urrengo agertu ziran lez. Idazlan nausiotaz gafiera, jakin bedi ezin konta ala idazlan argitaratu zituala aldizkari eta egunkarietan, eta itzaldi asko emon be bai an or emen eta egokiera askotan.

1- *Creencias, ritos, usos y costumbres de los indios catios de la Prefecture! Apostolica de Urabd.* Bogotan argitaratu eban 1924n, Vaticano 1925n egingo zan Mixio-Erakustokirako. Urtez, Seberino Aitak idatziriko lenengo liburua. Bere taiu ta zeaztasunagaitik, etnologoak oso aintzat artu eben eta aleman izkuntzara itzulia izatea merezi eban laster.

- 2- *Carta pastoral*. 1926.
- 3.- *Corona funebre del primer Prefecto Apostolico de Urab, Mons. Jose Joaquin de Urteaga*. 1927n.
- 4- *Instruction pastoral sobre el ministerio parroquial* Medelln 1932. 166 orr.
- 5.- *Cancionero poetico misional de Urab*. Argitaratu bakoa.
- 6- *Breve catecismo de la Misidn de Urab*. San Sebastian 1932.
- 7.- *Cantos populares de los indios Carios de Urab*. Argitaratu bakoa.
- 8.- *Cancionero mariano de Urab*. 1959. 466. orr.
- 9- *Origenes de la devocion a la Santisima Virgen en Colombia y Nomenclador Mariano*. Medelln 1952. 200 orr.
- 10.- *Virgenes Conquistadores que Santa Teresa envio a las Americas*. San Sebastian 1951. 714 p.
- 11.- *Nuestra Senora de Andikona en Berriz*. Bilbao 1953. 373 orr.
- 12.- *La Inmaculada en la Conquistay cobniaje de America Espahola*. Bilbao 1954. 343 orr.
- 13- *Vizcayapor la Inmaculada*. Bilbao 1955. 280 orr.
- 14- *Historia documentada de la Iglesia en Urab y el Darien, desde el descubrimiento hasta nuestros dias*. 5 vol. Bogota 1956-1957.
- 15.- *Los Indios Carios. Los Indios Cunas*. Medelln 1959, 317 orr.
- 16.- *Santa Teresa por las Misiones*. Bilbao 1959. 670 orr.
- 17.- *Ejercicios espirituales segun el espiritu y doctrina de Santa Teresa y San Juan de la Cruz, para carmelitas descalzos y descalzas*. Bilbao 1962. 621 orr.
- 18.- *Santa Teresa glorificada por los Santos*. Amaitu barik.

Pedro Maria Dunabeitia